



SAN JOSEPE HARROBIAREN IDEIEN LEHIAKETA

San Josepe Harrobiaren Ideien Lehiaketaren Epaimahaiak, 2009ko martxoaren 17an, honako Epai eman du

EPAIA

Epaimahai honek San Josepeko harrobiaren Ideia Lehiaketaren bost lan finalistak aztertu ditu, lehen saria eta bigarren saria merezi duten lanak zehazteko. Irabazleak 88.000 euroko saria izango du; bigarren saria izango da 12.000 euro ematea.

Lehiaketa honetako lehen fasean aukeratu zuten bigarren fasera pasatu behar ziren bost finalistak. Hauek ziren proiektu finalistak: HARRIZATE, KISKY, KO, SUELO eta TRONERA.

2009ko martxoaren 5ean, aurreko proposamenen bost talde egileek aurreproiektuak aurkeztu zituzten Arrasateko Udalean, lehiaketaren lehen fasean agertutako ideiak garatzen zituztenak. Udalak bigarren faserako emandako norabideei egokitu zitzaizkien aurkeztutako agiriak. Epaimahaiko kideek bost lan horien kopia digitala jaso zuten martxoaren 6an.

2009ko martxoaren 16an hitzaldiak egin zituzten Kulturateko eraikinean lanen egileen eskutik, finalista geratutako proposamen bakoitza azaltzeko. Epaimahaiko kideak horra joan ziren eta bost hitzaldiak ikusi eta entzun zituzten, eta aukera izan zuten galderak egiteko egilei.

Lehiaketaren arauk adierazten dituzte zer helburu lortu nahi dituzten, proposamenak baloratzeko dauden irizpideak, bai eta irizpide horiei emandako ponderazioa ere:

- Diseinuko irizpideak.....30 puntu.
- Ingurumen irizpideak.....20 puntu.
- Bideragarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak.....20 puntu.
- Hirigunean egokitzeko irizpideak.....15 puntu.
- Energia irizpideak.....15 puntu.

Aztertzeko diren lanak baloratzeko, lehiaketako arauetan adierazitako irizpideak erabili ditu Epaimahaiak.

Lehenik eta behin, epaimahaiak azpimarratu gura du aurkeztu diren proiektu guztien kalitatea. Bost proiektuek erakutsi dituzte intereseko ideiak-indarra, eta horrek erakusten du zergatik aukeratu zituzten finalista izateko. Ikusi ditugu bost ideia ezberdin San Josepeko harrobiaren hutsartea eta haren ingurua zelan bete eta egin jakiteko; horietako bakoitzak alderdi bereziak ekarri ditu eta horiek denak baturik aberastu egin dute lehiaketaren bukaerako helburua, hau da, harrobia erabili, hurbildu eta kolonizatze esku-hartzerik egokiena definitzea.

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



Aurrekoaren harira, Epaimahaiak aipamen berezia egin gura dio lehiaketan parte hartu duten guztiek egindako lanari, lehiaketaren lehen fasean parte hartu zuten guztiak. Epaimahaiak jakin daki zaila dela halako ezaugarriak dituen erronka bati ekitea, bai eta denbora asko eta sormen handia behar direla eskuartean dugun ideia bat moduko lana agertzeko. Horregatik, epai edo erabaki honen bidez, omenaldi txiki bat egin gura die lehiaketan parte hartu duten 26 taldeei, egindako lanarengatik eta lortu duten emaitzarengatik.

Deliberatzeko prozesua izan da hainbat botazio egitea, behin betiko proposamen bati atxikitzeko ahalik eta boto gehien batzeko. Aurkeztutako proposamenen aldeko eta kontrakoei buruzko eztabaidak egin eta gero, Epaimahaiak, azken botazio batean, erabaki du lehen saria ematea TRONERARI eta HARRIZATERI, biei, eta eta bigarren saria KISKYRI.

Epai edo Erabaki hori emateko arrazoia izan da, uneoro lehiaketako arauak gogoan izanik, Epaiaren iritziz HARRIZATE eta TRONERA proposamenak gainerakoen gainetik egon dira.

Bi proposamen horietan kontuan hartu izan dituzten aspekturik garrantzitsuenak hemen datoz aipatuta:

- Kontuan hartu dituzte euren proposamenetan lehiaketako arauetan jasota datozen balorazio irizpide guztiak.
- Tratamendu berezia eman diote harrobia uztartzeari herri sarearekin, antolatu beharreko espazioa luzatu dutelarik herriaren erdialderaino.
- Xehetasunez aztertu dituzten ibigailuen sarbideak (motordunenak eta motorgabeenak) eta oinezkoen sarbideak, bai harrobira bai hurbileko hirigunera, gaurko egunean gabezia eta akats askorekin.
- Ingurumen irizpideen ikuspegitik, bietan azpimarratu da Deba erreka ertzak errekueratzeko planteamendua, konponbide ezberdinez, baina erreka ondoan aisialdi gune bat sortzeko helburuaz, hiri eta inguru kalitate handikoa.
- Garatzen duten azterketa ekonomikoari dagokionez, azpimarratu behar da horietatik ateratzen den zorroztasuna eta xehetasuna eta, horren ondorioz, ematen duten sinesgarritasuna. Egia da bai hutsuneak ere badirela, proposamen biek agertzen duten epe luzearengatik, baina horrela ere soluziobide batzuk ematen dituzte, horiei atxikitako eduki urbanistikoa-arkitektonikoari sinesgarritasun ekonomikoa ematen diotenak.

Aurrekoetz gain, bat datozenak HARRIZATEREN eta TRONERAREN proposamenetan, Epaimahaiak bertutetzat jo dituzte proposamen bakoitzean alderdi nabarmen hauek:

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



TRONERA

Nabarmentzen da problema aztertzen duelako hiri dimentsio batetik. Proposamenak aukera ematen du leku hori eta herria lotzeko, bide eta oinezkoen funtzionalitateari buruzko mugikortasuna aztertuz, bai eta oinezkoak harrobira joateko irisgarritasuna konpontzeko ere, hiri igogailu inklinatu bat ezartzeko proposatuz, lehengo hiri funikularren antzera. Lotura hori indartzeko, nabarmentzen da errepidea estali izana, eta horrela lortzen du bide hori ez izatea hiri oztopo bat, gaurko egunean gertatzen den moduan, Arrasate erdialdea eta harrobia berezitura daudela. Gainera, proposamenak azpimarratzen du ondoko auzoak biziberritzeko aukerak aztertzeko planteatzea, herrian osatu daitezkeen, bai eta Deba erreka errekupeatzea ere, ibai parke moduan erabili eta gozatzeko, eta oraingo zubiak baloratzea ere. Zehatzago esanda, hiru eremu deskribatzen du: A eremua (harrobia), B eremua (mendi hegala) eta C eremua (ibaiertza). C eremuan (ibaiertzean) planteatu du ibai parke bat sortzea, eraikin batzuk mantendu eta beste batzuk bota. Etxeak, ekipamenduak, tutoretzapeko apartamentuak eraikitzea jasotzen du. B eremua (mendi hegala) trantsizio leku bat moduan dago, ibaiertzaren eta harrobiko goiko eremuaren artean, eta hor planteatzen du oraingo saihebidia (GI-627) lurpetik joatea, eta berdegune natural bat sortzea, eta hor proposatzen dute eraikitzea hainbat eraikin, bizitegi, dentsitate ertain moderatukoak.

Harrobiaren proposamena aztertuko dugu orain: nabarmentzen da ongietorriko leku bat sortzen duelako, aurrean duena bai harrobiaren horma bai harrobiaren perimetroaren ertzaz moldeatutako kuku-leihoak, eta horiek aukera ematen dute begiz lotzeko harrobiaren barrualdea eta herriaren nukleoa, eta balio du ere inguruko mendietako inguruko paisaia kokatzeko.

Azpimarratzekoa da autopista estali izana harrobitik pasatzean, alde batetik zarata sortzailea aldentzean ematen duen zaratatik babesteko eta, bestetik, harrobi hutsartearen azalera ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Harrobiaren barrualdean sartzen ditu eraikin linealak eta aldapatsuak, mugatzen dutenak harrobiaren espazioa izaera bat baino gehiagoko eremu txikietan. Nabarmentzen da harrobiaren paisaiari aurre egiteko berezitasuna, 5 dorre lerdenez, eraikin linealetan kokatzen direnak, eta horien bertikaltasunak joera du elkarri eragiteko harrobiko bankada horizontalen bertikaltasunaz. Eraikuntzak apustu egiten dute erabilerak barrualdean nahasteko, estrategia azkarra, Epaimahaiaren iritziz, azpimarratu ere egiten dute saiatu izan dela bateratzen erabilera guztiak eta bigarren mailako erabilerak, jarduera ekonomikoak, neurri handiko lekuak eskatzen baitute (manufakturakoak).

Lehiaketan aurkeztutako proposamen gehienetan bezalaxe, harrobiko horma errespetatu du, ulertu baitu berez horrek balioa ematen diola inguruari.

Azpimarratzekoa da bereziki TRONERAK egin duen azterketa drainatze naturalez lortutako uraren kudeaketari buruz, bai eta bildu eta erregulatzekoa ere, ureztatzeko eta suteen aurkako sareetan erabiltzeko.

Halaber, nabarmentzen du era Energia Berriztagarriak harrobian zuzenean erabili izana era globalean, eta exijitzen du energia berriztagarriak sortzea, legezko gutxieneko eskakizunetik gora, energia kontsumoa murrizte aldera eta olio sortzeko planta bat jartzeko planteamenduaren bidez.

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



Azkenik, berriro azpimarratuko dugu proposamena aztertzeke erabili duen enfoke globala, eta zein zorrotz eta zehatz garatu duen azterketa ekonomikoa.

HARRIZATE

Nabarmetzen da problema aztertzen duelako hiri dimentsio batetik. Proposamenak aukera ematen du leku hori eta herria lotzeko, bide eta oinezkoen funtzionalitateari buruzko mugikortasuna aztertuz, bai eta oinezkoak harrobira joateko irisgarritasuna konpontzeko ere. Lotura hori indartzeko, nabarmetzen da errepidea estali izana, eta horrela lortzen du bide hori ez izatea hiri oztopo bat, gaurko egunean gertatzen den moduan, Arrasate erdialdea eta harrobia berezituta daudela. Gainera, proposamenak azpimarratzen du ondoko auzoak biziberritzeko aukerak aztertzeke planteatzea, herrian osatu daitezen, bai eta Deba erreka errekeratzea ere. Zehatzago esateko, planteatu du, labur-labur, bost eremu bereizirik (San Josepe Harrobia; Intxausti-Umezaintza; Araba etorbidea; GI-627 lotunea eta Kurtzetxiki), Eremu bakoitzari tratamendu berezia ematen dio. Araba etorbidean etorbide bat sortzea jasotzen du, nagusiki bizitegi diren eraikinekin. Intxausti-Umezaintza eremuan, eraikin zilindriko batzuk eraikitzea, babes ofizialeko etxeak egiteko. Gorago, planteatzen du estaltzea oraingo saihesbideko zati bat, aurreko eremuaren eta San Josepeko harrobiaren artean jarraipenik izan ez dadin. Nabarmendu behar da ere Kurtzetxiki mendiaren antolamendua aztertzen duela, harrobi inguruko bidezidorretatik.

Azpimarratzekoa da autopista estali izana harrobitik pasatzean, alde batetik zarata sortzailea aldentzean ematen duen zaratik babesteko eta, bestetik, harrobi hutsartearen azalera ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Epaimahaiak nabarmendu du soziologia, hirigintza eta ingurumen arloko aurreko azterketaren intentsibitatea, lehiaketa eta proposatutako problematika aztertzeke moduan.

Harrobiaren proposamena aztertuko dugu: aisialdi espazio bat sortu nahi du, aurrean horma duelarik eta eraikinak estregiaz kokaturik dauden harrobiaren hutsartearen albo batean.

Lehiaketan aurkeztutako proposamen gehienetan bezalaxe, harrobiko horma errespetatu du, ulertu baitu berez horrek balioa ematen diola inguruari.

Halaber, nabarmetzen du Energia Berriztagarriak zuzenean aplikatzea era globalean, eta energia kontsumoa murriztea.

Azkenik, berriro azpimarratuko dugu proposamena aztertzeke erabili duen enfoke globala, eta zein zorrotz eta zehatz garatu duen azterketa ekonomikoa.

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



HARRIZATEri eta TRONERari lehen saria ex aequo emateko arrazoiak azaldu eta gero, hona hemen bigarren sarirako aukeratutako proposamenaren alderdirik esanguratsuenak:

KISKY

Nabarmetzen da proposamenak apustu egin duelako helburu arkitektoniko baten alde, geometria argi eta zehatzekoa, inguruko paisaian nabari izateko eta harrobian txertatzeko. Azpimarratzekoa da eraiki artefaktu bateratu bat erabiltzen duela, harrobiaren espazioaren berebera den ordena bat eraikitzen laguntzen duena, eta estrategia du kontzentratzea erabilera nahasketa bat batzeko gaitasuna, horko espazioa kanpoaldera liberatu dadin lortzeko, baloratzu eta harrobiko horma aurrean duelarik. Lekuaren beraren interbentzio urratsak hartzen ditu eraikinak, harrobiaren baldintza morfologikoak eta topografikoak ateratzen ditu, aisialdiko espazio publikoak eramaten baititu harantz, eta baloratzen du inguruko paisaia, bidezidor berriak sortzen baititu artefaktuan, eta horrek ikuspegi berriak sortzen ditu. Eraikina berez konfiguratuta dago auzo bertikaleko egitura moduan, kale bat estalpean, bizitegi eta ekipamendu/merkataritza erabileretarako. Kale hori lotuta dago harrobiaren bermetan dauden bideen sarearekin, eta hortik kultura ekipamenduetara zoaz.

Azpimarratzekoa da corpus teoriko baten eta erreferentziako corpus baten formulazioa, harrobiari emandako konponbidearen planteamendua aztertu izanaren ondorioz.

Azpimarratzekoa da ere arkitekturaren bidez sortu izan estalki erakargarri bat, gogoia ematen duena hor sartzen eta harrobiko barrualdean ibiltzeko. Azpimarratu behar da elementu horren sakontasuna, zenbait iragazkortasun mailatan, testuretan eta horma-arteetan neurrietan. Objektu arkitektonikoaren geometria okertsua dela eta harrobiko barrualdeko espazio nagusia dago sailkatuta espazio txikiagoetan, era berean baloratuta daudenak horien arteko loturaren lurzoru nagusiaren tratamenduarengatik eta erabilerarengatik.

Halaber, nabarmentzekoa da Energia Berriztagarriak zuzenean aplikatzearen aldeko apustua egiteko proposamena, era globalean egina.

Epaimahaiak sumatu du hutsunerik, adibidez, proposamenak ez du uztartu proiektua hiri sarean eta jarduera berria ez du lotu eraikita dagoen herriarekin. Horregatik ez du jaso lehen saria.

Bada beste proiektu bat, SUELO, harrobiaren ingurunea ere landu duena, baina beste bi proposamenen aldean, alderdi hori ere garatu dutenak (HARRIZATE eta TRONERA), SUELO proiektuak ez dio ematen harrobiaren hutsarteari hain eraginkorra eta osoa den irtenbidea. Proposamena, oro har, finalera iristeko meritua izan dituen baloreak agertu ditu, baina hutsartearen konponbideak ez dio eman akabera egokirik proiektuari. Planteatutako erabilera nahiz harrobiaren plazako konponbide formala ez dira iritsi aurreko proiektuen mailara. Ez ditu garatu aurrekoen zehaztasun mailaz proposamenaren ingurumen eta energia alderdiak.

KOri dagokionez, proposamenak ez du landu proiektua eta harrobiaren hutsartearen ingurunea lotzea. Proposatu ditu nagusiki ekipamendu erabilerak eta Epaimahaiak positiboki baloratu du erabilera anitz agertu izana. Epaimahaiaren iritziz ez da egon aurrerapen bat, hasierako proposamenaren aldean, sariak merezi izateko.

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Azkenik, Epaimahaiak, aipatu ditugun emaitzak helarazteaz gain lehiaketako antolatzaileei, azaldu gura dizkio hainbat ondorio, lehiaketa honetatik ateratako ondorioak, San Josepeko harrobiko hutsartea baloratzeari dagokionez:

- Proposamen guztiek agertu dute harrobiaren aurreko hormaren aldeko errespetua, monumentu bat moduan, hormaren ezaugarriak direla-eta berak duen presentzia, baloratzeko modukoa.
- Harrobiaren plazatik igarotzen den autopistaren bide-zatia (une honetan egiten ari dena) estali egin behar da, izan ere, autopista estaliz gero ez dugu zati behar izango lekua edo espazioa, eta hortik dabilen trafikotik datorren kutsadura akustikoa desagertuko da; horrek nahitaez baldintzatu ditzake ondoko espazioetako erabilerak.
- GI-627 bide-zatia estaliz gero, harrobiaren hutsartea osatzen duen espazioa hurbilduko du nabarmen gertuko hiri ingurunera, eta horren ondorioz erraztu egingo du hara iristeko modua, bai ibilgailuez bai oinez.
- Harrobiko plaza baloratu ahal izateko, planteatu behar da gertuko ingurunea garatzea. Hala izan ezean, uharte bat izango da, gutxi erabili daitekeena.
- Harrobiko hutsartean espazioa baloratu gero, udalerrak izan dezake lurzoru azalera handi bat, etorkizunean hainbat eta hainbat behar asebetetzeko. Horrek ekarriko du berekin errespetua izatea lurzoru hiritarrezinari, balizko sailkapenetatik babesteko. Eta hortik aparte planteatu lezake deskalifikatzea une honetan lurzoru hiritargarri kalifikaturik dauden lurzoruak.

Arrasaten, 2009ko apirilaren 2an
EPAIMAHAIAREN IDAZKARIA

LEHIAKETAREN BABESLEAK:



EVE | Ente Vasco
de la Energía

